

Biologiaren eta Geologiaren Ikaskuntza eta Irakaskuntza

1. Oinarrizko datuak

- **Irakasgaia:** Biologiaren eta Geologiaren Ikaskuntza eta Irakaskuntza
- **Modulua:** Natur Zientziak eta Matematika, ME I
- **Izaera:** Derrigorrezkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Ainhoa Latatu Nuñez

2. Irakasgaiaren laburpena

Irakasgai honek Biologia eta Geologiaren irakaskuntza eta ikaskuntzak **kultura zientifikoarekin duen lotura** landuko du. Biologia eta Geologiaren irakaskuntzarako **estrategia metodologiko eta didaktikoak** landuko dira, ikasleek dituen aurre ezagutzetatik abiatuz. **Zein eduki landu, zelan landu eta noiz landu** aztertuko dugu sekuentzia didaktikoak aztertuz eta sortuz.

3. Gaitasunak

Irakasgaiko konpetentziak

Biologia eta Geologia materiako curriculumaren araberrako edukiak ezagutzea eta, orobat, ikaste-irakaste prozesuei buruzko ezagutza didaktikoak. Biologia eta Geologiaren ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak ezagutzea.

Biologia eta Geologiako curriculumeko konpetentziak ezagutzea eta arazo-egoeren bitartez ebaluatzen jakitea.

Biologia eta Geologiaren ikaskuntzarekin ikasleen ezagutza zientifikoa garatzen lagunduko duen giroa sortzea eta ikasleek bere beharrezkotasunari garrantzia ematen jakitea.

Ikaste-irakaste prozesua planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea, heziketa-prozesuak indartuz irakaskuntza bakoitzari dagozkion konpetentziak eskuratzeko. Horretarako, ikasleen hasierako mailari eta prestakuntzari erreparatuz.

Estrategiak eskuratzeko ikaslearen ahalegina sustatzeko eta bere kabuz zein beste batzuekin ikasteko gaitasuna indartzeko, eta, orobat, pentsatzeko eta erabakitzekeo trebetasunak garatzeko; horretarako, haren autonomia, konfiantza eta inizatiba sendotuko dira.

- Tituluko kompetentziak

CB7. Ikasleek beren ikasketa-arloarekin lotutako testuinguru zabalagoetan (edo diziplina anitzekoetan) eskuratutako ezagutzak eta arazoak konpontzeko duten gaitasuna aplikatzen jakitea.

CB9. Ikasleek beren ondorioak – eta horiek sostengatzen dituzten azken ezagutzak eta arrazoiak – publiko espezializatuei eta ez-espezializatuei jakinarazten jakitea, modu argian eta anbiguotasunik gabe.

CB10. Ikasleek ikasteko trebetasunak izatea, ikasten jarraitu ahal izateko, neurri handi batean beren kabuz edo autonomiaz zuzendu beharko duten moduan.

CT1988 - Giza eskubideen, berdintasunaren, generoaren, kultura-aniztasunaren eta eleaniztasunaren aldeko jarrera proaktiboak sortzea.

CT1989 - Espezialitatearen eremuko berezko lengoaia zientifikoa erabiltzea.

CT1991 - Irakaskuntzari balioa ematea eta garapen profesionala eta bizialdi osoko ikaskuntza sustatzea.

CE1580 - Ikasleen ezaugarriak, gizarte-testuinguruak eta motibazioak ezagutzea.

CE1582 - Ezagutza, trebetasun eta gaitasun intelektual eta emozionaletan oinarritutako proposamenak egitea.

CE1505 - Ikasleen ikasteko gaitasunean eta eskola-errendimenduan eragiten duten faktoreak eta prozesuak identifikatzea eta baloratzea.

4. Irakasgai-zerrenda (gaitegia)

- Ezagutza zientifikoa, zientzien ikaskuntza eta kompetentzia zientifikoa
- Biologia eta Geologiaren Curriculumei gainbegirada
- Biologia eta Geologiaren kompetentziak
- Biologia eta Geologiaren Unitate Didaktikoak
- Biologia eta Geologia lantzeko arazo egoeren diseinua
- Estrategia metodologikoak eta baliabide didaktikoak
- Biologia eta Geologiaren ebaluazioa

5. Bibliografia

- Didáctica de la Biología y la Geología. Pedro Cañal (koord.). Grao argitaletxea (2011)
- Biología y Geología. Complementos de formación disciplinar. Pedro Cañal (koord.). Grao argitaletxea (2011)
- 11 Ideas Clave. El desarrollo de la competencia científica. Emilio Pedrinaci (koord.). Grao argitaletxea (2012)
- Revista Eureka sobre enseñanza y divulgación de las Ciencias. Cadizeko Unibertsitatea.
- Revista Alambique. Didáctica de las Ciencias Experimentales. Grao Argitaletxea.
- ZientziaKaiera. Dibulgazio zientifikoari lotutako aldizkari digitala. UPV/EHUko Kultura Zientifikoaren Katedra.
- Elhuyar Aldizkaria. Zientzia eta Teknologia.